

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

EGINOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Eginoko hilerriaren erabilera eta hilerrian eskaintzen diren zerbitzuen tasa arautzen duen ordenantza

Eginoko Kontzejuak, 2019ko azaroaren 9an, behin betiko onetsi zuen Eginoko hilerriaren erabilera eta hilerrian eskaintzen diren zerbitzuen tasa arautzen duen ordenantza, eta erabaki zuen argitaratzea haren testu osoa. Argitaratu ostean hasiko da indarra izaten.

I. Titulua

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Eginoko Kontzejua da hilerriaren jabe bakarra, eta berari dagokio hilerriaren zuzendaritza, administrazioa, arautzea eta onik zaintzea, jabari eta zerbitzu publikoko ondasuna baita; hori guztia, ordenantza honetan adierazitakoari jarraituz, beste agintari edo erakunde batzuen berezko eskumenak direnetan izan ezik.

2. artikulua. Eginoko Kontzejuari dagokio:

– Hilerria, eta zerbitzuen eta instalazioen hileta eraikuntzak antolatzea, zaintzea eta ego-kitzea.

– Hilobien erregistroa egitea orrialdeak zenbakituta dituen liburu zigilatu batean. Adminis-trazio Batzarrak hilobiratu eta hilobietatik atera diren gorpuk idatziko ditu bertan.

– Hilerriaren barne araubidea.

– Partikularrei baimena ematea hilerrian edozein motatako obrak edo instalazioak egiteko, bai eta haiek zuzentzea eta ikuskatzea ere, udal baimena eskatu behar den edo ez alde batera utzita.

– Hilobien emakidak onartzea eta edozein motatako ehorzketa eskubideak aitortzea.

– Zuzenbidearen arabera ezartzen diren eskubideak eta tasak kobratzea.

– Osasun eta higiene neurriak betetzea.

– Hilerriaren jabea eta erakunde publikoa den aldetik, bere gain hartu behar dituen beste-lako zereginak.

3. artikulua. Norbanakoei dagokie:

– Hilerrian ehorzketa duina egiteko eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, erlijio edo beste edozein arrazoiren baten ondoriozko bereizkeriarik egin gabe.

– Ordenantza honen arabera, bere erlijio eta ideologiari dagozkion ehorzketa eskubideak aukeratzea eta horietaz gozatzea.

– Hilobiak, kolunbarioak eta horma hilobiak egoera egokian mantentzea, estetikari eta apaindura publikoari dagokienez.

– Ordenantzaren zerbitzuak emateko ezartzen diren eskubideak edo tasak ordaintzea.

– Bai Eginoko Kontzejuak, bai beste administrazio edo erakunde eskudunak hilotzen osasun betebeharrei buruz ematen dituztenak errespetatu eta betetzea.

— Partikularrek egingo dituzte eremuan egin beharreko lanak, hala nola, lur emateak, lurpetik ateratzeak, lekualdaketak eta antzekoak. Kontzejuaren ordezkari batek gainbegiratuko ditu lan horiek.

4. artikulua. Ez zaie sartzen utziko, nola dauden ikusita edo beste arrazoi batzuegatik, hilerriko lasaitasuna eta ordena nahas ditzaketen pertsoneri edo pertsona taldeei. Txakurrak edo bestelako animaliak ere ezingo dira hilerriara sartu.

II. Titulua

Hilerria kudeatzea, administratzea eta onik zaintzea

Lehenengo kapitulua Instalazioak

5. artikulua. Eginoko hilerriak honako instalazio hauek dauzka:

- Banakako lurpeko hilobietarako lursaila, eremu komunean.
- Ehorzketetarako 48 horma hilobi.
- Errautsetarako 24 kolunbario.
- Hezurtegi edo hobi komun bat.

Bigarren kapitulua Kudeaketa

6. artikulua. Hilerriaren kudeaketan helburu hauek sartzen dira:

- Hilerria administratzea eta haren ordena eta zaintza egitea, garbitzea eta araudia betetzea.
- Gorpu edota gorpuzkien ehorzketak eta hilobietatik ateratzeak ikuskatzea; baita hilotzen osasun arloan indarrean dagoen legeriak behartutako beste edozein jarduera ere.
- Hilerriaren elementu, eraikin eta instalazio komunak zaindu, mantendu eta garbitzeko lan eta zerbitzuak egitea, bai eta elementu horien funtzionamendua ere.

7. artikulua. Hala horma hilobiak nola kolunbarioak giza gorpuk eta gorpuzkiak zuzenean ehorzteko izango dira bakarrik.

8. artikulua. Eginoko Kontzejuak hilerriaren barruan ordenari eutsiaraziko dio, eta bertako eginkizunek eskatzen duten begirunea exijituko du. Horretarako, honako arauak betearaziko ditu:

- Hilerria itxita egongo da beti, eta ateko giltza bana emango zaie hilobi, horma hilobi edo kolunbarioa duten familiei, baldin eta giltza eduki nahi badute.
- Kontzejuak hilerriaren zaintza orokorra egingo du; hala ere, ez du bere gain hartuko hilobietan, instalazioetan, horma hilobietan eta hilerrian jar daitezkeen gauzetan hirugarren batzuek egin ditzaketen lapurreta eta hondaketen gaineko erantzukizuna.
- Ehorzketa obrak eta inskripzioak hilerriaren eginkizuna errespetatuz egin beharko dira. Edonola ere, hilarriak, gurutzeak eta abar jartzeko baldintzak, kontzejuaren erabaki bidez arautuko dira.
- Partikularrek egingo dituzte ehorzketa unitateen garbiketa, mantentze eta apainketa lanak, beti ere instalazioak errespetatuz. Jardun horiek bukatuta, lanerako erabili duten espazioa eta haren inguruak garbi eta apain utzi beharko dituzte. Beraz, obra hondakinak, zaborrak eta laneko materialak berehala jaso beharko dituzte. Partikularrek garbitu eta kontserbatzeko betebeharra betetzen ez badute, eta hondatuta daudela ikusten bada, Eginoko Kontzejuak errekerimendua egingo dio ukitutako eskubidearen titularrari, eta hark lanak adierazitako epean egiten ez baditu, kontzejuak subsidiarioki egin ahal izango ditu, dagokion partikularren kontura.

Hirugarren kapitulua Administrazioa

9. artikulua. Eginoko Kontzejuak, dagozkion helburuak betetzeko, administrazio eginkizun eta eginkizun teknikoak gauzatzeko ahalmena izango du eta bereziki jarraian zehazten diren hauek oso-osorik betetzeko:

- Gorpu eta gorpuzkiak ehortzi, hilobietatik atera, tokiz aldatu, erraustu eta deuseztatzeko baimena ematea. Eginoko Kontzejuaren baimen horrek ez du kentzen gorpuzkiak hilobiratu eta lekualdatzeko beharrezkoa den osasun arloko baimena eskuratu beharra, hala dagokionean.
- Ehorzketa zerbitzuen eskubideak eta tasak kobratzea, ordenantzak dioenaren arabera.
- Bideak, estolderia sarea, argiteria eta lorategiak eta hilerriko interes orokorreko gainerrakoak mantendu, zaindu eta garbitzeko zerbitzua.
- Hilerriaren administrazioarekin zerikusia duen beste edozein eginkizun.

10. artikulua. Eginoko Kontzejua arduratuko da erregistro liburua eguneratzeaz, eta bertan datu hauek jasoko dira:

- Hildakoaren izena eta abizenak.
- Helbidea.
- NANA.
- Heriotza data.
- Ehorzketa data. (Horma hilobiak).
- Lekualdatzeko edo okupatzeko data. (Kolunbarioak).
- Gorpuzkien egoera (lurpean, nitxo zenbakia, kolunbario zenbakia).
- Senide edo arduradun baten datuak. (Izena, helbidea, telefonoa).

III. Titulua Ehorzketa eskubideak

11. artikulua. Eginoko Kontzejuak aitortu eta emango ditu ehorzketa eskubideak, ordenantza honetan eta toki araubideko araudian xedatutakoaren arabera.

12. artikulua. Eginoko Kontzejuaren jabetza diren horma hilobiak eta kolunbarioak aldi baterako lagapenak izango dira, gutxienez legez finkatutako epera arte, hilerrian ehorzketa eskubidea duten guztientzat. Kontzejuak erabakitzen duen arte luzatu ahal izango da epe hori, hilerrian leku aldetik dauden premiak kontuan hartuta. Eginoko Kontzejua arduratuko da gorpuzkiak hilobietatik ateratzeaz.

Eginoko Kontzejuarenak diren horma hilobiak eta kolunbarioak mantendu eta zaintzeko ardura horiek erabili dituzten partikularrena izango da, emakidak irauten duen bitartean.

Ehorzketa eskubideak berekin dakar bakar-bakarrik hilerriko horma hilobiak erabili ahal izatea, horien jabari titulartasuna Eginokoko Kontzejuari bakarrik baitagokio, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

13. artikulua. Eginoko Kontzejuarenak diren horma hilobietan eta kolunbarioetan egoteko denbora gorpuzkien ehorzte egunetik okupazio egunetik hasiko da kontatzen.

Legeak finkatzen duen epea igarotakoan, Eginoko Kontzejuak, gai organikoa suntsitzeko fenomenoak amaitu eta gero, gorpuzkiak hilobitik atera ahal izango ditu, beharrezkotzat jotzen badu, eta oinordekoei horren berri eman beharko die gutxienez ere hiru hilabete lehenago, haiek non dauden erraz jakiteko modurik izanez gero. Oinordekoek nora eraman adierazi ezean, gorpuzkiak hezurtegi komunean utziko dira, berreskuratzeko markarik edo identifikaziorik gabe.

14. artikulua. Eginoko Kontzejuak ehorzketa eskubideak aitortu eta emango dizkie hiltzeko unean honako talde hauetakoren batean dauden pertsonei:

- Herriko biztanle guztiei, gutxienez ere urtebete lehenagotik bertan erroldatuta badaude.
- Eginon jaiotako guztiak edo herrian aldi baterako bizi izan diren guztiak, gutxienez urtebeteko antzintasunarekin.
- Aurreko bi ataletan sartzan direnen ezkontideak. Atal honetan sartzan dira izatezko bikoitekideak.
- Aurreko puntuetan sartuta egon ez arren, Eginoko Kontzejuak aztertu eta onartzen dituenak.

15. artikulua. Aseguru etxeak, aurreikuspen konpainiak edo antzekoak ez dira inoiz ehorzketa eskubideen titular izango, eta, beraz, ez dute eraginik izango Eginoko Kontzejuan ituntzen diren poliza edo kontratu klausulek, baldin eta aseguratupei kasuan kasuko ehorzketa eskubidea ordaintzeko behar den kapitala emateko ez diren beste eskubide batzuk estali nahi badituzte.

16. artikulua. Ehorzketa eskubidea emateko eta hobeto identifikatzeko, hilerriko horma hobiak eta kolunbarioak dagokion planoan adieraziko dira.

17. artikulua. Ehorzketa eskubidearen epea amaitutzat eman eta Eginoko Kontzejura itzuliko da honako kasu hauetan:

- Hilobiak zaindu ez eta aurri bihurtuta daudenean. Eskubidea iraungitza jo aurretik txosten teknikoa egingo da eta konpontzeko edo egokitzeko emandako epeak ez direla bete egiaztatuko da.
- Ehorzketa eskubidea ordenantza honetan xedatutakoaren aurka erabiltzen bada.
- Edonola ere, legeak finkatzen duten aldi baterako emakida epea igarotzen denean.
- Interesdunari tasak ordaintzeko eskatu ondoren, dagozkionak ordaintzen ez baditu.
- Titularrak berariaz uko egiten badio.
- Ehorzketa eskubidearen epea amaitu dela aitortzeak ezarritako emakida iraungitzea ekarriko du, eta ez da egongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik.

IV. Titulua Tasak

18. artikulua. Ehorzte unitateak erabiltzeari dagozkion tasak, bai lurpekoa, horma hilobietakoa edo kolunbarioetakoa, honako hauek dira:

- Erroldatutako auzokoak: 0 euro.
- Erroldatu gabe daudenak baina ehorzketa eskubidea dutenak: 180 euro.

Xedapen iragankorrak

Lehenengoa. Horma hilobiak: Ordenantza hau indarrean sartu arte inolako erregistrorik gabe zeuden egungo emakidak Eginoko Kontzejuak horma hilobiak eraiki zituenean zuen ohituraren eta akordioaren arabera mantenduko dira, eta gaur egun dauden bezala geratuko dira, familia bakoitzarentzako hiru altuerako bloketan banatuta, behar izan diren heinean.

Emakida emateko epea hilarrietan adierazitako okupazio data kontuan hartuta eta ordenantza honetako araudi osoa errespetatuz aplikatuko da, behin betiko onesten den egunetik aurrera.

Eginoko Kontzejuak baimena eman ahal izango du, baldin eta ehorzketa eskubideak betetzen badira eta legez ezarritako gutxieneko epea igaro bada, beste senide baten gorpuzkiak sartzeko, eta erregistro liburuan jasota geratuko da.

Bigarrena. Kolunbarioak: zenbakizko ordenaren arabera esleituko dira, beharren arabera, eta familia bakoitzeko bat; izan ere, horietako bakoitzean gorpuzki baten baino gehiagoren errautsak utz daitezke.

Emakida epea erregistro liburuan adierazitako okupazio data kontuan hartuta aplikatuko da.

Xedapen gehigarria

Ordenantza honetan aurreikusi ez den guztirako, honakoak beteko dira: uztailaren 20ko 2263/1974 Dekretua, hilotzen osasun zaintzaren arautegia onartzen duena; ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko antolamendu sanitarioarena; urriaren 19ko 202/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko hilotzen sanitate alderdiei buruzko arautegia onartzen duena; eta indarrean dauden gainerako arauak.

Azken xedapena

Ordenantza hau ALHAOn oso-osorik argitaratu ondorengo hamabosgarren egun baliodun jarriko da indarrean, behin betiko onetsi ondoren.

Egino, 2020ko urtarrilaren 7a

Lehendakaria

JAVIER MARTÍNEZ DE ORDOÑANA RUIZ DE LUZURIAGA